PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA

GIPUZKOAKO TURISMO-BEHATOKIA MARTXAN JARTZEN, MANTENTZEN ETA GARATZEN TURISMO ZUZENDARITZA NAGUSIARI LAGUNTZEKO IDAZKARITZA TEKNIKOAREN ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA

1.- AURREKARIAK

Gipuzkoako Turismoaren Plan Estrategikoaren helburu nagusia da turismo-eredu iraunkor eta antolatu bat sortzea, lurralde osoan enplegua eta aberastasuna modu orekatuan sortzeko eta gure kulturaren berezitasuna sustatzeko.

Helburu hori lortzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Turismo Zuzendaritza Nagusiak turismo-eredu propioa garatu du, BEGIKA eredua, ardatz estrategiko hauetan oinarrituta: Bisitariak, Enpresa, Gobernantza, Iraunkortasuna, Komunitatea eta Adimena.

Aipatutako ardatzekin lerrokatutako politika eta estrategien diseinua errazteko, Foru Aldundiak datuetan oinarritutako erabakiak hartzearen aldeko apustu argia egiten du.

Deustuko Unibertsitateko Behatoki Turistikoaren bidez, Turismo Zuzendaritza Nagusi honek Gipuzkoako jarduera turistikoari buruzko aldizkako txostenak, azterlanak eta ikerketak egiten lagundu du.

Une honetan, beharrezkotzat jotzen da turismo-behatoki propio eta berritzaile bat abian jartzea, turismo-helmuga honen kudeaketa adimentsua ahalbidetzeko, bildutako informazioa ezagutzan eraldatzeko eta, ondoren, ezagutza hori Gipuzkoako turismo-ekosistema osatzen duten agenteen eskura jartzeko, bereziki turismo-kudeaketako erakundeen, sektoreko enpresen eta profesionalen, eta bisitarien eta, oro har, herritarren eskura.

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARTICULARES

CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE SECRETARÍA TÉCNICA PARA LA ASISTENCIA A LA DIRECCIÓN GENERAL DE TURISMO EN LA PUESTA EN MARCHA, MANTENIMIENTO Y DESARROLLO DEL OBSERVATORIO TURÍSTICO DE GIPUZKOA

1.- ANTECEDENTES

El Plan Estratégico de Turismo de Gipuzkoa recoge como objetivo general, la creación de un modelo turístico sostenible y organizado, que ayude a crear empleo y riqueza en todo el territorio de forma equilibrada y a promocionar la singularidad de nuestra cultura.

En orden a lograr dicho objetivo, la Dirección General de Turismo de la Diputación Foral de Gipuzkoa ha desarrollado un modelo turístico propio, el modelo BEGIKA, basado en los siguientes ejes estratégicos: visitantes (Bisitariak), empresa (Enpresa), Gobernanza (Gobernantza), sostenibilidad (Iraunkortasuna), comunidad (Komunitatea) e inteligencia (Adimena).

Para facilitar el diseño de políticas y estrategias alineadas con los mencionados ejes, es clara la apuesta de la Diputación Foral por una toma de decisiones basada en datos.

Por medio del Observatorio Turístico de la Universidad de Deusto esta Dirección General de Turismo ha venido apoyando la realización de informes periódicos, estudios e investigaciones respecto de la actividad turística en Gipuzkoa.

En este momento, se considera necesario poner en marcha un observatorio turístico propio e innovador que posibilite la gestión inteligente de este destino turístico, que permita la transformación de la información recopilada en conocimiento y la posterior puesta a disposición de ese conocimiento a los distintos agentes que integran el ecosistema turístico de Gipuzkoa, en particular a los entes de gestión turística, las empresas y profesionales del sector, así

como para las personas visitantes y ciudadanía en general.

Horren guztiaren helburua da BEGIKA eredu turistikoan oinarritutako politiken eta estrategien diseinua erraztuko duten erabakiak hartzeko modua optimizatzen laguntzea. Horrela, bisitarien bidaia-esperientziaren kalitatea hobetuko da (BISITARIAK), sektoreko enpresen eta profesionalen lehiakortasuna areagotuko da (ENPRESA), lankidetza publiko-pribatua handiagotuko da (GOBERNANTZA), ingurumenaren, sozioekonomiaren eta lurraldearen jasangarritasunerako eredu turistikoa bultzatuko da (IRAUNKORTASUNA), egoiliarren bizi-kalitatea handituko da (KOMUNITATEA) eta, azken batean, helmugaren kudeaketa hobetuko da adimena erabiliz (ADIMENA).

La finalidad de todo ello es la de contribuir a una optimización de la toma de decisiones que faciliten el diseño de políticas y estrategias basadas en el modelo turístico BEGIKA, que supondrán una mejora en la calidad de la experiencia de viaje de las personas visitantes (BISITARIAK), un incremento de la competitividad de las empresas y profesionales del sector (ENPRESA), una mayor colaboración público-privada (GOBERNANTZA), un impulso del modelo turístico hacia la sostenibilidad medioambiental, socioeconómica y territorial, (IRAUNKORTASUNA), un aumento de la calidad de vida de las personas residentes (KOMUNITATEA), y en definitiva, una mejora en la gestión del destino mediante el uso de la inteligencia (ADIMENA).

2.-KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da Gipuzkoako Foru Aldundiko Turismo Zuzendaritza Nagusiari Gipuzkoako Turismo Behatokia martxan jartzen, mantentzen eta garatzen laguntzeko Idazkaritza Teknikoaren zerbitzua ematea.

Idazkaritza Teknikoko zerbitzu horrek zeregin hauek ditu:

- Merkatuan dauden informazio-iturrietatik datozen datuen azterketa
- Turismo Zuzendaritza Nagusiari laguntza ematea Gipuzkoako lurraldearen errealitate turistikoa ezagutu eta interpretatzeko
- Gipuzkoako errealitate turistikoa ezagutzeko aldizkako eta berariazko txostenak egitea
- Materialak prestatzea eta hedapen-eta/edo prestakuntza-saioak egitea, lortutako ezagutza Gipuzkoako turismo-ekosistemara zabaltzeko

2.-OBJETO DEL CONTRATO

El objeto del presente contrato es la prestación del servicio de Secretaría Técnica para la asistencia a la Dirección General de Turismo de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en la puesta en marcha, mantenimiento y desarrollo del Observatorio Turístico de Gipuzkoa.

Dicho servicio de Secretaria Técnica abarca las siguientes tareas:

- Análisis de datos procedentes de fuentes de información existentes en el mercado
- Asistencia a la Dirección General de Turismo en el conocimiento e interpretación de la realidad turística del territorio de Gipuzkoa
- Elaboración de informes periódicos y específicos para conocer la realidad turística de Gipuzkoa
- Preparación de materiales y ejecución de sesiones de difusión y/o formación para extender el conocimiento obtenido al ecosistema turístico guipuzcoano

- Beste turismo-behatoki batzuekiko lankidetza
- Turismo-behatokia etengabe hobetzeko aholkularitza.

- Cooperación con otros observatorios de turismo
- Asesoramiento para la mejora continua del observatorio turístico.

3.- GIZA BALIABIDEAK

Zerbitzua emateko, enpresa esleipendunak kontratua gauzatzeko behar beste giza baliabide, baliabide tekniko eta material atxiki beharko ditu, kontratua behar bezala garatuko dela bermatzeko, eta honako eskakizun hauek bete beharko ditu:

Proiektuaren zuzendaritza turismo-helmugetako aholkularitza estrategikoan gutxienez 5 urteko esperientzia duen pertsona batek hartu beharko du bere gain.

Enpresa esleipendunak proposatutako lantaldea ezin izango da aldatu aldaketa horrek erakunde kontratatzailearen onarpena ez badu.

3.- MEDIOS HUMANOS

Para la prestación del servicio la empresa adjudicataria deberá adscribir a la ejecución del contrato los medios humanos, técnicos y materiales suficientes que garanticen el buen desarrollo del contrato, con los siguientes requerimientos:

La dirección del proyecto deberá ser asumida por una persona con un mínimo de 5 años de experiencia en consultoría estratégica de destinos turísticos.

El equipo de trabajo propuesto por la empresa adjudicataria no podrá ser modificado si dicha alteración no cuenta con la aceptación de la entidad contratante.

4.- EGINDAKO LANEN JABETZA ETA KONFIDENTZIALTASUNA

Gipuzkoako Foru Aldundia izango da kontratu hau gauzatzearen ondorioz eskuratutako datuen eta lortutako informazioaren jabea, baita sortutako euskarri informatiko edo komunikaziokoen eta kontratua gauzatzearen ondorioz egindako lanen dokumentu eta emaitza guztien jabea ere.

Enpresa esleipendunak ezin izango du inoiz kontratu honen xedeari buruzko adierazpen publikorik egin, Gipuzkoako Foru Aldundiko Turismo Zuzendaritzaren berariazko baimenik gabe.

4.- PROPIEDAD DE LOS TRABAJOS REALIZADOS Y CONFIDENCIALIDAD

La Diputación Foral de Gipuzkoa será la propietaria de los datos adquiridos y de la información obtenida con motivo de la ejecución de este contrato, así como de todos los soportes informáticos o de comunicación creados, y de todos los documentos y resultados de los trabajos realizados como consecuencia de la ejecución del contrato.

En ningún momento, la empresa adjudicataria podrá hacer declaraciones públicas sobre el objeto del presente contrato, sin la expresa y previa autorización de la Dirección de Turismo de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Donostia, 2023ko apirilak 26a

San Sebastián, 26 de abril de 2023

Sin./Fdo.: Xabier Elelzegi

Turismo Plangintza eta Kudeaketa Unitateko burua
Jefe de la Unidad de Planificación y Gestión Turística